



## Kazetarien Euskal Elkargoak eta Elkarteak kazetaritzarekin eta kazetariekin konpromiso handiagoa eskatzen diete instituzioei

### *Legebiltzarreko Prentsa-kabinetean kazetaria ez den langile baten kontratazio hurren baten aurrean*

**Kazetarien Euskal Elkargoak** eta **Elkarteak** euskal-instituzioei, eta bereziki, Legebiltzarrari, kazetaritzaren ogibidearekin konpromisoa eskatzen diete eta Komunikazio lanetarako kazetariak kontratatzekeo beharra azaltzen dute. Honela, Informazio Zientzia eta Komunikazio-hezkuntzaren alde apostu egitera deitzen diete ogibidea sustatzeko, kazetaritza delarik edozein gizarte demokratikok behar duen zerbitzu publikoa.

KEEK eta EKEK iritzi publikoari bere ezinegona eta larritasuna adierazi nahi die kazetaria ez den langile batek Komunikazio lanetan ibiliko delako Eusko Legebiltzarreko Prentsa Sailean. Euskadin 3 Kazetaritza eta Komunikazio Fakultate ditugu eta etsigarria, paradoxikoa, kontraesankorra eta justifikaezina da kazetari-titulua ez eskatzea Komunikazio-lanetan aritzeko.

Kazetaritzak azken 3 hamarkadetako unerik latzenak bizi ditu egun, komunikabideak itxi egin dira eta milaka lanpostu galdu egin dira. Krisi bikoitzak, eredu estruktural eta ekonomikoak, jazartzen ari garen bilakaerak, honek guztiak lan-ezinegona ekarri du eta kazetariok gure lana erantzukizun handiz lantzeko eta jorratzeko erronka dugu eta geuk bermatu behar dugu herriatarrei emandako informazioa independentea eta egiazkoa izatea. Egoera honen aurrean, instituzioek eta erakunde publikoek eredu izan beharko lukete, ez lukete zalantzarik gehitu behar eta ulertu beharko lukete kazetariok, gure lanaren kalitatearen standarretatik, etika eta deontologiatik, diziplina bat ordezkatzeko dugula, geure burua prestatu egin

dugula eta Adierazpen Askatasunera eta Informazioaren Eskubidera bideratuta dagoen ogibidea lantzen dugula, hauek direlarik Bizikidetasuna, Elkarrizketa eta Herri-etzabaida sustatzeko enibesteko motorra.

Eusko Legebiltzarrak, herriaren subiranotasunaren egoitza eta ordezkari denez, hutsegite hau zuzendu beharko luke, Titulu Ofizialen Katalogoari lepoa ematen dieten etorkizuneko kontratazioak saihestu eta hauxe gogoratu: **“Kazetaririk gabe ez dago Kazetaritzarik eta Kazetaritzarik gabe ez dago Demokraziarik”**.

Alda. San Mamés, 37 - 4º Dpto.6 - 48010 BILBAO - Tfno: 94 410 60 40 - [www.kazetariak.eus](http://www.kazetariak.eus)

[info@kazetariak.eus](mailto:info@kazetariak.eus)

Kazetariak.<sup>.eus</sup>